

Urriak 13 > Azaroak 14

Iparra galdu gabe!

IV Jornadas sobre Iparralde



Sarrera

Euskal Kultur Erakundea, EKE, 1990ean sortu zen Iparraldean euskara eta euskal kultura bultzatzeko helburuarekin. EKEN, Frantziako Kultura ministerioa, Akitania eskualdea, Departamendua eta 146 herri biltzen dituen mankomunitatea daude sartuta.

Euskal Kultur Erakundeak 10 urte daramatza harremanetan **Getxoko Udalarekin** eta harreman horretatik sortu dira **IPARRA GALDU GABE** bezalako programak. Bi urtez behin egiten den programa honek duen helburua hau da: Ipar Euskal Herria Getxon ezagutzera emateko ekintza anitzak antolatzea. Horretarako hainbat jardueratako kulturgileak ekarri ditugu Getxora: literatura, dantza, musika, gastronomia, kirola, kultura, turismoa, kontularitza, antzerkia, eta abar.

EKEkoek eta **Getxoko Udalekook** zerbait egin nahi genuen **argazkigintzaren, edo zabalago, arte bisualen inguruan. GETXOPHOTO** ezin aproposagoa da horretarako, batetik, argazkigintzako sareak ongi ezagutzen dituztelako eta, bestetik, kalitatezko lan berritzailea egiten dutelako.

Elkarlan honetatik sortu da **Jon Cazenavek** sortu duen **HERRI IXILEAN** argazki erakusketa, eta baita 2010eko **IPARRA GALDU GABE** egitasmoaren programa.

IPARRA GALDU GABE egitasmoak aurtengo ediziorako hautatu duen irudia pilotalekuarena da, batetik, Ipar Euskal Herria ondo irudikatzen duen irudia delako, eta bestetik, pilota munduak ondo sinbolizatzen duelako euskal kulturaren iraupena.

Zuen gustukoa izango delakoan izan untsa!



Introducción

El Instituto Cultural Vasco, EKE, nació en 1990 con el objetivo de impulsar el euskera y la cultura vasca en Iparralde. **EKE** está conformado por el Ministerio de Cultura francés, la región de Aquitania, el Departamento y la mancomunidad formada por 146 municipios.

EKE lleva 10 años trabajando con el **Ayuntamiento de Getxo**, y de esta colaboración han surgido multitud de iniciativas, por ejemplo, las jornadas sobre Iparralde **IPARRA GALDU GABE**. El objetivo de estas jornadas que se organizan cada dos años, no es otro que el de acercar Iparralde a Getxo. Para conseguirlo, se organizan diversas actividades en diversas materias: literatura, danza, música, gastronomía, deporte, cultura, turismo, teatro, etc.

Ha sido el propósito de **EKE** y del Ayuntamiento poner en marcha alguna iniciativa en el mundo de las **artes visuales**, más en concreto, en el de la **fotografía**, y para ello, hemos contado con **GETXOPHOTO**, inmejorable plataforma para conseguir un trabajo pionero de calidad en el mundo de la fotografía.

De esta colaboración a tres bandas han surgido, tanto la exposición **HERRI IXILEAN** del fotógrafo **Jon Cazenave**, como el programa de la cuarta edición de **IPARRA GALDU GABE**.

IPARRA GALDU GABE ha elegido para el cartel anunciador de este año, la imagen de un frontón típico de Iparralde, por una parte, porque al verlo nos recuerda sus pueblos y por otra parte, porque el mundo de la pelota simboliza que la cultura vasca sigue viva en Iparralde.

Esperando que el programa sea de vuestro agrado, nos despedimos como lo hacen en Iparralde: izan untsa! (que le vaya bien).



Iparra ez da inola galtzen Getxon...


Badu orain hamar urte Getxoko hiriarekin lotura sendoak baditugula, eta beti helburu berarekin: Iparraldearen hobeki ezagutaraztea, antolatzen ditugun ekitaldien bihotza euskara eta euskal kultura dugularik.

Ekintzen egitea ongi da, baina urteak joan, urteak jin, harreman horien iraunaraztea oraino hobeki. Badakigu gure muga psikologikoak beti hor ditugula, iparraldearen eta hegoaldearen artean. Hain zuzen, elkarlana eta kultura trukaketak lehenetsiz, gure herria, ortzadarraren antzera, koloretsua eta anitza izanen da, eta erran gabe doa, euskalduna.

Aurtengo egitarauaren bihotza, Jon Cazenave argazkilariaren “Herri ixilean“ erakusketa izanen da. Iparraldean gaindi ibili da, ilunaren eta argiaren bila. Arrotza bezala zen hastapenean, baina lana bururatzean, etxekoa senditu da! Hauxe diote haien argazkiek.

Hori zaigu guri ere gertatu Getxon. Iraun dezala luzaz oraino...eta esker mila.

Pantxoa ETCHEGOIN
Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria





El Norte no está perdido en absoluto en Getxo...

Ya son diez años que mantenemos firmes lazos con la localidad de Getxo, con un solo propósito, dar a conocer lo mejor posible a Iparralde partiendo de una base para la organización de los actos, el euskara y la cultura vasca.

Bién está que se celebren distintos actos, pero con el devenir de los años es mejor conservar las relaciones establecidas. Sabemos que existen fronteras psicológicas entre el norte y el sur, entre iparralde y hegoalde, pero si damos prioridad a la colaboración y a los intercambios culturales, nuestro país, cual arco iris, será múltiple y colorido, y, ¿qué decir?, euskaldun.

El alma del programa de este año es la exposición del fotógrafo Jon Cazenave titulada “Herri ixilean“. El ha recorrido Iparralde en pos de la luz y de la oscuridad. Tal vez fuera extraño al principio, pero con la ejecución de su obra se ha sentido de casa. Así lo manifiestan sus fotografías.

Tal como nos ha ocurrido a nosotros mismos en Getxo. Que perdure por largo tiempo... Muchas gracias.

Pantxoia ETCHEGOIN
Director de Euskal Kultur Erakundea

URRIAREN 13tik AZAROAREN 14ra arte, Torrene erakusketa aretoan (Torrene kalea 3).

Astelehenetik ostiralera, 11:00-13:00/ 17:00-20:00. // Larunbatetan, 12:00-14:00 / 18:00-21:00. // Igandeetan, 12:00-14:00. HERRI IXILEAN erakusketaren katalogoa salgai: 10 euro.

“Herri ixilean” Erakusketa

Jon Cazenave Donostian (Hegoaldean) jaiotako argazkilari gaztea da: “Baiona bisitatu nuen behin eta Chemin de Cazenave izeneko kalera ailegatu nintzen. Une horretan Iparraldean nire abizen eta familiaren arrastoari jarraituko niola erabaki nuen”. Jonek bidaia batean, bere abizenarekin lotutako leku, subjektu eta gertaera historikoen inguruko informazio-bilketan oinarritutako proiektua garatu du. Interes hori, jatorri horien aurkikuntzan baino, gehiago oinarritzen da Iparraldean zehar, Hegoaldetik abiatuta, eginiko bilaketa-prozesuan. Proiektu hau GETXOPHOTO-k Euskal Kultur Erakundearekin (Institut Culturel Basque) ekoiztutako erakusketa ibiltari batean irudikatuko da, Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin.

URRIAK 14, 19:00, Torrene erakusketa aretoan (Torrene kalea 3).

Beratarzen direnei erakusketaren katalogoa oparituko zaie.

“Herri ixilean” Erakusketaren inaugurazioa

JON CAZENAVEk, erakusketan ikus litezkeen argazkien egileak, bere lanaren gaineko azalpenak emango dizkigu. Bere ondoan izango ditu erakusketa antolatu duten erakundeetako ordezkariak, Euskal Kultur Erakunde-koak, GETXOPHOTOkoak eta Getxoko Udalekoak.

URRIAK 17, 08:00etan KIRIKINOtik irten / 10:30ean ibilbidea hasi.

Txartela: 3 euro, Villamonteko Kultur Etxean (urriaren 14ra arte). Bazkaria norberak.

Atxuriako itzulia Mendi ibilaldia Iparraldean, Panpi Olaizolaren eskutik

Orain bi urte lortutako arrakasta ikusita aurten ere mendi ibilaldirik bat antolatu dugu Iparraldea hobeto ezagutzeko. Horretarako, PANPI OLAIZOLA gidari apartarekin Atxuriako itzulia egingo dugu. Zugarramurdiko plazatik abiatuko gara eta 3 ordu inguruko ibilaldirik baten ostean Sarako leizeen aurrean amaituko dugu. Ikuspegi ederrak, trikuharria... eta giro aparta.

Ibilaldia amaitutakoan bazkaldu egingo dugu. Bazkariaren ondoren, “biskotxa” (euskal pastela) eta Iparraldeko sagardoa doan dastatzeko aukera Saran. Egun-pasa eta azalpenak euskaraz izango dira.



13 OCTUBRE >14 NOVIEMBRE Sal3n de exposiciones Torrene (C/ Torrene, 3).

Lunes a viernes 11:00-13:00/ 17:00-20:00. // Sábados, 12:00-14:00 / 18:00-21:00 // Domingos, 12:00-14:00.
Cat3logo de la exposici3n HERRI IXILEAN: 10 euros.

Exposici3n Fotogr3fica “Herri ixilean”

Jon Cazenave es un joven fot3grafo nacido en San Sebasti3n (Pa3s Vasco sur): “Hace un tiempo visit3 Bayona y llegu3 a una calle cuyo nombre era Chemin de Cazenave. En ese momento se me ocurri3 la idea de rastrear en Iparralde los or3genes de mi apellido y familia”. Jon ha desarrollado un proyecto basado en un viaje, en la b3squeda de informaci3n sobre lugares, sujetos y acontecimientos hist3ricos relacionados con su apellido. El inter3s no radica tanto en el encuentro de dichos or3genes, sino en el proceso de esa b3squeda por Iparralde.... partiendo desde Hegoalde. Una suerte de road movie por Euskal Herria.

Este proyecto se plasmar3 en una exposici3n itinerante producida por GETXOPHOTO en colaboraci3n con Euskal Kultur Erakundea (Institut Culturel Basque) y con la ayuda del Servicio Municipal de Euskara del Ayuntamiento de Getxo.

14 OCTUBRE, 19:00, Sal3n de exposiciones Torrene (C/ Torrene, 3).

A los y las asistentes al acto se les obsequiar3 el cat3logo de la exposici3n.

Inauguraci3n de la exposici3n “Herri ixilean”

JON CAZENAVE, autor de las fotos expuestas en la exposici3n, nos explicar3 las caracter3sticas de su trabajo. A su lado tendr3 a los representantes de las entidades que han promovido la exposici3n: Euskal Kultur Erakundea (Institut Culturel Basque), GETXOPHOTO y Ayuntamiento de Getxo.

17 OCTUBRE, 08:00, salida desde Kiriki3o / 10:30 inicio de la excursi3n.

Precio: 3 euros. Inscripciones en el Aula de Cultura de Villamonte hasta el 14 de octubre. Cada uno deber3 llevar su propia comida.

Excursi3n al monte Atxuria (Iparralde) con Panpi Olaizola

Tras el 3xito conseguido hace dos a3os, tenemos la oportunidad de conocer otro paraje de Iparralde. Para ello contaremos con el gu3a PANPI OLAIZOLA, con el que realizaremos la excursi3n por Atxuria. Saldremos de la plaza de Zugarramurdi, para acabar, tras unas 3 horas de marcha, en las cuevas de Sara. Bonitas vistas, d3lmenes y ambiente inmejorable. Tras la comida, tendremos la oportunidad de degustar “biskotxa” (pastel vasco) y sidra de Iparralde en Sara, gratis.

La excursi3n se desarrollar3 en euskera.







URRIAK 19, 17:00, Andra Mariko frontoietan.

GEHITU KIROLAREN eskutik eta Getxoko Pilota Eskolaren laguntzarekin.

Sebastian Gonzalez pilotaria

Getxon

Getxoko Pilota Eskolako ume eta gaztetxoek Sebastian Gonzalez pilotari txapeldunarekin entrenamendua egingo dute. Sebastián Gonzalez Donibane Lohizuneko da.

URRIAK 21, 18:00, doan. Torrene erakusketa aretoan (Torrene kalea 3).

(Instituetako ikasleentzat 10:00 eta 11:30).

“Herri ixilean” erakusketa ezagutzeko bisita gidatuak Jon Cazenaverekin

Jon Cazenave argazkiliariaren azalpenen bidez HERRI IXILEAN erakusketa hobeto ezagutzeko aukera izango dugu. Argazkiei buruzko azalpenak eta Ipar Euskal Herrian izan dituen bizipenak ezagutzeko aukera aparta.

URRIAK 22, 19:00, doan. Torrene erakusketa aretoan (Torrene kalea 3).

Baionako “Cazenave” txokolatearen dastaketa

Cazenave txokolategia Baionan sortu zen 1854an. Ohiko ekoizpena mantentzen du: txokolatea artisauek era eginez eta produktu naturalak erabiliz. Egiten duten txokolatea dastatzeko eta euren azalpenak entzuteko aukera paregabea izango dugu Getxon.

Anje Duhalde

Daniel Landarti esker onez

Anje Duhalde kantariak, Daniel Landartek idatzitako hitzak dituzten kantak kantatuko ditu.

Getxoko Udalak 10 urte daramatza harremanetan Euskal Kultur Erakundearekin. Harreman horietatik, Ipar Euskal Herria ezagutarazteko hainbat eta hainbat ekimen antolatu ahal izan ditugu Getxon. Eta antolaketa lanetan hor ibili da beti DANIEL LANDART. Daniel adiskidea jubilatuko egingo da laster; guk gure esker ona adierazi nahi diogu ekitaldi xume batekin.

DANIEL LANDART

1946ko abenduaren 11n sortua, Donostirir (Nafarroa-Beherean). Hogeitaz (1965-1985) euskal antzerkiaren animatzailea: antzele (8 aldiz), idazle (12 obra) eta zuzendari (15 antzezlan). Liburuak: Hogoitaz urte, Aihen ahula (3 edizio), Erranak erran, Batita Haundia (Irun Literatur Saria), Anaiaren azken hitzak. Artikulu askoren idazlea kazeta eta agerkarietan: Gazte, Pan-Pin, Etchea, Enbata, Herria, Almanaka... Hogeitaz kantuen hitzak egin ditu. Musikatzaileak eta kantariak: Mikel Laboa (“Zure begiek”), Akelarre (“Goizero”), Anje Duhalde, Errobi taldea (“Txileko langileria”, “Telebista”), Mixel Ducau. Bertso-saio askoren antolatzailea eta gai-jartzailea. Euskaltzain urgazlea (1979). Euskal kultur Erakundearen, Zuzendariordea.

19 OCTUBRE, 17:00, en el frontón de Andra Mari.

A cargo de GEHITU KIROLA y con la colaboración de la Escuela de Pelota de Getxo.

El pelotari Sebastian Gonzalez en Getxo

Los chavales de la Escuela de Pelota de Getxo tendrán la oportunidad de realizar un entrenamiento con el campeón Sebastian Gonzalez, pelotari de Donibane Lohizune.

21 OCTUBRE, 18:00, gratis. Salón de exposiciones Torrene (C/ Torrene, 3).

(10:00 y 11:30 para el alumnado de los institutos).

Visita guiada a la exposición “Herri ixilean” con Jon Cazenave

A través de las explicaciones del autor de la exposición, JON CAZENAVE, conoceremos de primera mano la exposición HERRI IXILEAN. Características de las fotos expuestas, pero también las vivencias del autor mientras recorría Iparralde.

22 OCTUBRE, 19:00, gratis. Salón de exposiciones Torrene (C/ Torrene, 3).

Degustación de chocolate “Cazenave” de Baiona

La casa de chocolates Cazenave de Baiona se fundó en 1854. Todavía perdura la forma tradicional de hacer chocolate, que no es otra que la de utilizar productos naturales de forma artesanal. En Getxo tendremos la oportunidad de degustar su chocolate y de escuchar sus explicaciones.

Anje Duhalde canta en agradecimiento a Daniel Landart

El cantante Anje Duhalde, interpretará canciones basadas en letras escritas por Daniel Landart. El Ayuntamiento de Getxo lleva 10 años trabajando en colaboración con EKE, Instituto Cultural Vasco. Fruto de esta colaboración se han organizado infinidad de actos culturales y en la organización siempre ha estado nuestro amigo DANIEL LANDART. Daniel se jubila, por lo que mediante este sencillo acto queremos expresar nuestro agradecimiento.

DANIEL LANDART

Nacido el 11 de diciembre de 1946 en Doniztiri (Nafarroa-Behea). Durante 20 años inmerso en el mundo del teatro en euskera: actor, escritor de 12 obras y director en 15 obras teatrales. Libros : Hogoj urte, Aihen ahula (3 ediciones), Erranak erran, Batita Haundia(Premio literario de Irun), Anaiaren azken hitzak. Autor de infinidad de artículos en los siguientes medios: Gazte, Pan-Pin, Etchea, Enbata, Herria, Almanaka... Autor de alrededor de una veintena de canciones muy conocidas. Sus letras han sido cantadas por Mikel Laboa (“Zure begiek”), Akelarre (“Goizero”), Anje Duhalde, Errobi taldea (“Txileko langileria”, “Telebista”), Mixel Ducau. Miembro de Euskaltzaindia desde 1979. Subdirector de Euskal Kultur Erakundea.

URRIAK 22, 20:30etatik aurrera, Algortako kaleetan.

Kalejira Uztaritzeko Txarangarekin

Getxoko karrikak musikaz eta animazioz beteko dira Uztaritzetik datorren txarangarekin. Metalezko musika-tresnak nagusi, perkusioz lagundurik, Iparraldeko eta Hegoaldeko herriko besta askotan ibiltzen dira.

URRIAK 22, 22:00, Fadurako erretegi zaharrean.

Afariako txartelak Villamonteko Kultur Etxean urriaren 20ra arte. Afaria: 15 euro.

Iparraldeko Besta: Kantu Afaria “Holako” hirukotearekin eta Uztaritzeko Txarangarekin

Mirentxu Lazkano, Jokin Irungaray eta Sebastian Othaburu. Hiru gazte alai, musikari trebe, giro ona sortzea daukate helburu... Euskal kantu zoragarriak dakizkizite, dotzeman hamahiru. Zatoz lagunekin, egin dezagun elkarrekin kantu eta apairu! Kantuak ez badakizkizu ere, lasai etorri liburuxkak banatuko ditugu eta.

Eta afariaren ostean UZTARITZEKO TXARANGAarekin kantuan eta dantzan jarraitzeko aukera aparta. Halako festa galduko duzu?

URRIAK 28, Torrene erakusketa aretoan (Torrene kalea 3).

Institutuetako ikasleentzat.

“Iparraldea XXI” Gaurko Iparraldea ezagutzen ote duzu?

Dokumentalaren aurkezpena

Gonbidatuak: Amets Arzallus eta Pantxo Etxegoin

17 minutuko dokumental honetan modu dinamikoan ikusten da Iparraldearen errealitatea: EHZ festibala, surfa, musika (MAK rap taldea batetik eta Amaren Alabak taldea, bestetik), bertsoaritzza (Maiana Irigoyen eta Amets Arzallus), dantza... eta dena, XALA pilotari ospetsuak gidatuta, berak egiten dituen elkarriketen bidez.



22 OCTUBRE, a partir de las 20:30, en las calles de Algorta.

Kalejira a cargo de la txaranga de Uztaritze

Las calles de Getxo se llenarán de animación a cargo de esta txaranga especializada en animar las fiestas tanto de Iparralde como de Hegoalde.

22 OCTUBRE, 22:00, en el antiguo asador de Fadura.

Tickets para la cena en el Aula de Cultura de Villamonte hasta el día 20 de octubre. Precio: 15 euros.

Fiesta de Iparralde: Kantu Afaría con el trío de Iparralde Holako y la txaranga de Uztaritze

Mirentxu Lazkano, Jokin Irungaray y Sebastian Othaburu, tres jóvenes alegres, buenos músicos que no tienen otro objetivo que el de hacer disfrutar a la gente. Con ellos tendremos la oportunidad de cantar estupendas canciones de Iparralde. Anímate a cantar con nosotros!! Repartiremos cancioneros para los y las que no conozcan las canciones.

Y tras la cena continua la fiesta con la TXARANGA de UZTARITZE .

28 OCTUBRE, Salón de exposiciones Torreñe (C/ Torreñe, 3).

Para los y las alumnas de los institutos.

“Iparraldea XXI” ¿Conoces la actual Iparralde?

Presentación del documental

Invitados: Amets Arzallus y Pantxo Etchegoin

En este documental de 17 minutos de duración podemos conocer la realidad de Iparralde desde un punto de vista actual: el festival EHZ, el surf, la música (con el grupo rapero MAK y con el grupo Amaren Alabak), los bertsolaris (Maiana Irigoyen y Amets Arzallus), la danza... y todo ello hilvanado con las entrevistas realizadas por el famoso pelotari XALA.



AZAROAK 4, 20:00, doan. Torrene erakusketa aretoan (Torrene kalea 3).

“Beste Aldekoak”

Asisko Urmeneta eta Peio Etchecopar

Ipuin eta inprobisaturiko ilustrazio ikuskizuna.

Peio Etchecopar (Lexantzü, Xiberoa) eta Asisko Urmeneta (Iruñea, Nafarroa), bakoitza bere esperientziatik, ariko zaizkigu euskalduntasunaz.

Hain ezberdinak diren bi mundu (Frantzia-Espainia, Ipar-Hego, Hiri-Herri), zerk ditu bildu gaualdi honetan? Eta ba ote da balizko loturarik, bertaratuko diren jendearekin? Duda metodikoa eta umorea lagun, denok ikasiko dugu zerbaite elkarren artean. Edo ez.

AZAROAK 5, 19:00 Faturako trinketean.

Sarrera 5 euro Villamonteko Kultur Etxean.

Trinketeko Pilota Jaialdia

Iparraldeko eta Hegoaldeko pilotari ospetsuak elkarrekin eta elkarren aurka pilota jaialdi handian

Binaka: **WALTARI** eta **INHAR UGARTE ETXETO** eta **GORDON**en kontra

Buruz-buru: **MIKEL GONZALEZ ROBER URIARTE**ren kontra

AZAROAK 7, 11:30 eta 13:00. Villamonteko Kultur Etxean.

SENDIren eskutik. Umeen adina: 3-7 urte. Iraupena: 45 minutu. Ume-kopurua: 50 gehienez.

Izena emateko epea: azaroaren 2ra arte. Euskaraz izan arren, pertsona guztiak ikus dezakete.

SENDI: Karitate kalea 1, sotoa - 10. bulegoa. 94 491 4357 | 685 73 29 63 (Lander).

www.blogari.net/sendisendigetxo@yahoo.com

“OTTO” Haurrentzako ikuskizuna (Elirale konpainia)

Iparraldeko ELIRALE konpainiak haur txikiei zuzendutako ikuskizuna dakarkigu. Artistak: dantzari bat, antzele bat eta musikari bat. Musika, dantza eta hitzak “Lodikroko” liburuaren inguruan. Haurtzaroko gaietan zehar egindako ibilaldi goxoa. Guztia soinuaren, erritmoaren eta errimen jokoan oinarrituta. Poesia amets egiteko unea da, baina baita gorputzaren adierazpen unea ere...



4 NOVIEMBRE, 20:00, Salón de exposiciones Torrene (C/ Torrene, 3).

“Beste Aldekoak”

Asisko Urmeneta y Peio Etchecopar

Espectáculo que conjuga los cuentos y las ilustraciones improvisadas.

Peio Etchecopar (Lexantzü, Zuberoa) y Asisko Urmeneta (Iruñea, Nafarroa), ironizarán sobre mundos tan diferentes como el norte y el sur, sobre las ciudades y sobre los pueblos.

5 NOVIEMBRE, 19:00, Trinquete de Fadura.

Entrada 5 euros. Venta anticipada en el Aula de Cultura de Villamonte.

Festival de Trinquete

Famosos pelotaris de Iparralde y de Hegoalde conforman este gran festival de trinquete.

Por parejas: **WALTARI e INHAR UGARTE** contra **EZKURRA y GORDON**

Mano a mano: **MIKEL GONZALEZ** contra **ROBER URIARTE**

7 NOVIEMBRE, 11:30 y 13:00, Aula de Cultura de Villamonte

A cargo de SENDI. Edad: 3-7 años. Duración: 45 minutos. Número de niños/as: 50 máximo.

Inscripciones: hasta el 2 de noviembre. Aunque sea en euskera, lo pueden ver todos.

SENDI: Karitate kalea 1, sotoa - 10. bulegoa. 94 491 4357 | 685 73 29 63 (Lander).

www.blogari.net/sendi sendigetxo@yahoo.com.

“OTTO” espectáculo infantil a cargo de la compañía Elirale

La compañía de Iparralde ELIRALE trae a Getxo un espectáculo dirigido a los y las más peques de la casa. La compañía se compone de un bailarín, un actor y un músico. En el espectáculo se conjugan la música, las danzas y la letra en un viaje a través de los temas de nuestra infancia. Todo ello basado en ritmos, en melodías y en el juego que se realiza de ellas. La poesía nos conduce a los sueños pero también a la expresión corporal.





Getxo
bizi ezazu



**EUSKARA
BIZI**



**EUSKAL
KULTUR
ERAKUNDEA
INSTITUT
CULTUREL
BASQUE**

**GET
XO
PHO
TO**



**BFA
DFB**

Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



Getxo
EUSKAL PILOTA

GETXO EUSKALDUNTZEKO HITZARMENA
9E7I+U
KIROLA

